

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2020ko erroldak

Arabako Foru Aldundiak Urizaharreko udal barrutian dauden landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2020ko ekitaldiko erroldak egin ditu. Horiek horrela, jendaurrean jartzen dira hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek epe horretan aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak eta oharrak egin ahal izan ditzaten, uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, zerga hori arautzen duenak, 21.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Erreklamaziorik egon ezean, behin betiko onetsizat joko dira.

Agiriak Urizaharreko Udalaren bulegoetan daude interesa dutenen eskura.

Urizaharra, 2020ko ekainaren 30a

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO